# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

## 6207

396/2005 DEKRETUA, azaroaren 29koa, Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordea sortzeko dena.

Apirilaren 25eko 249/1995 Dekretuak, Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 22. artikuluaren babesean, Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordea sortu zuen, jatorrian Jaurlaritzaren ekonomia-jardueraren oinarrizko organo gisa eratua. Hasierako arauak gero aldatu ziren organo honen eraketa eta funtzioak Gobernu ezberdinen exijentzia funtzionaletara egokitzeko asmoarekin, eta azkenean, ez ekonomia-jardueraren oinarrizko organo gisa soilik, baita Jaurlaritzaren lan estrategikoa errazteko berebiziko garrantzia duen koordinazio eta plangintza organo gisa ere, bermatuta geratu ziren arauok.

Legegintza berriaren hasierak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sailen egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren bidez eratutako sailaren egitura berriak Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordearen osaera eta egitekoen berrikusteari bide ematen diote, bere osaera sailaren egitura berriari egokitzeko eta Jaurlaritzaren jardueraren sustapen, koordinazio eta plangintza egitekoak indartzeko.

Hain zuzen ere, legegintza honen hasiera, Jaurlaritza osatzeko Koaliziozko Akordioan aurreikusitakoarekin bat, aproposa da Jaurlaritzaren jardueraren berrikusketa kritikoa egin eta plangintza eta koordinaziorako egungo tresnak gobernu eta gobernantza forma berrietara egokitzeko. Berrikusketa hau politika publikoen betearazpena sustatzeko balio duten koordinazio sistemak edo prozesuak sendotzeko eta, batetik, Jaurlaritzaren jardueraren osotasuna eta, bestetik, politiken aplikazioan zerikusia duten aktoreen identitatea eta errekonozimendua bermatzeko gauzatu behar da nagusiki.

Jaurlaritzaren planak elkarrekin erabakitzeko eta elkarrekin erantzukizunak hartzeko prozesuak sendotzearekin batera, sistema eta prozesuen azterketa eta ikerketa politika publikoen ebaluazio-jardueraren normal-

# Disposiciones Generales

## VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

## 6207

DECRETO 396/2005, de 29 de noviembre, de creación de la Comisión Delegada de Planificación y Asuntos Económicos.

El Decreto 249/1995, de 25 de abril, creó, al amparo del artículo 22 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, la Comisión Delegada para Asuntos Económicos, constituida originariamente como el órgano básico de la acción económica del Gobierno. La regulación inicial fue posteriormente objeto de modificación con el propósito de adecuar la composición y funciones de este órgano a las exigencias funcionales de los diferentes Gobiernos quedando finalmente acreditado no solo como órgano básico de la acción económica, sino también, como órgano de coordinación y planificación de capital importancia para facilitar la labor estratégica del Gobierno.

El inicio de esta nueva legislatura y la reciente estructura departamental configurada mediante el Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, propician la revisión de la composición y funciones de la Comisión Delegada para Asuntos Económicos, en orden a adaptar su composición a la nueva estructura departamental y reforzar sus funciones de impulso, de coordinación y planificación de la acción del Gobierno.

En efecto, el comienzo de la presente legislatura, de conformidad con lo previsto en el Acuerdo de Coalición para la formación de Gobierno, resulta idóneo para proceder a una revisión crítica y adecuación de los actuales instrumentos de planificación y coordinación de la acción de Gobierno a las nuevas formas de gobierno y gobernanza. Esta revisión debe ir dirigida principalmente a consolidar sistemas o procesos de coordinación que sirvan para impulsar la ejecución de las políticas públicas y para garantizar, por una parte, la integridad de la acción de Gobierno y por otra, la identidad y el reconocimiento de cada uno de los actores institucionales y no institucionales involucrados en la aplicación de las políticas.

Paralelamente a la consolidación de los procesos de codecisión y corresponsabilidad de los planes del Gobierno, el estudio y análisis de los sistemas y procesos de coordinación debe también venir forzosamente

kuntza eman behar da, Jaurlaritzaren jarduera oro har indartu eta maximizatzeko helburuarekin; era berean, plangintza berezirako tresnen ebaluazioa finkatu behar da, Jaurlaritzaren plangintza-tresnen ondorio zuzenak edo zeharkakoak erakusten dituzten adierazle kualitatiboen edo inpaktuzkoen hautaketaren bidez.

Aurrekoarekin koherentzian, koordinazioa, plangintza eta ebaluazioan politika publikoko funtzio berriak gehitzeak Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordearen izena aldatzea bermatzen du; honela, Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordea izatera pasatzen da eta Jaurlaritzaren politika sektorialen jarduera koordinatuaren sustatzaile diren organoen funtzioek ekonomia-jardueraren oinarrizko organoaren izaera osatu egiten dute.

Ondorioz, Jaurlaritzaren lehendakariordearen proposamenez, lehendakariak onartu eta gero, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko azaroaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Sorrera.

1.– Jaurlaritzaren baitan, Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordea sortzen da, bere osaera eta funtzioak dekretu honetan ezartzen dira.

2.– Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordea Jaurlaritzaren ekonomia-jardueraren eta bere politika sektorialen plangintza eta koordinazioaren oinarrizko organo gisa eratzen da, arau honen arabera.

*2. artikulua.*– Osaera.

2.– Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordearen kide honakoak izango dira:

a) Lehendakaria, buru izango dena.

b) Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburua. Lehendakaria bertaratzen ez denetan, Jaurlaritzaren lehendakariordea izango da Batzordeko buru.

c) Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua.

d) Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua.

e) Etxebizitza eta Gizarte gaietako sailburua.

2.– Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordearen idazkaritza-lanak Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak burutuko ditu.

*3. artikulua.*– Egitekoak.

acompañada de la normalización de la acción de evaluación de las políticas públicas, a fin de potenciar y maximizar la acción de Gobierno en su conjunto, al tiempo que se afianza la evaluación de los instrumentos de planificación específicos, mediante la selección de indicadores cualitativos o de impacto que muestren los efectos directos e indirectos en la ejecución de los instrumentos de planificación gubernamentales.

En coherencia con lo anterior, la incorporación de nuevas funciones en materia de coordinación, planificación y evaluación de políticas públicas avalan la modificación de la designación de la Comisión Delegada para Asuntos Económicos, que pasa a denominarse Comisión de Planificación y Asuntos Económicos, complementando con funciones de órgano promotor de la actuación coordinada de las políticas sectoriales del Gobierno su carácter de órgano básico de su acción económica.

En su virtud, a propuesta de la Vicepresidenta del Gobierno, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de noviembre de 2005,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Creación.

1.– Se crea, en el seno del Gobierno, la Comisión Delegada de Planificación y Asuntos Económicos, cuya composición y funciones se establecen en el presente Decreto.

2.– La Comisión Delegada de Planificación y Asuntos Económicos se constituye como el órgano básico de la acción económica del Gobierno y de la planificación y coordinación de sus políticas sectoriales en los términos de la presente norma.

*Artículo 2.*– Composición.

1.– La Comisión Delegada de Planificación y Asuntos Económicos estará integrada por los siguientes miembros:

a) El Lehendakari que la presidirá.

b) La Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública. En los casos de no asistencia del Lehendakari será la Vicepresidenta del Gobierno quien ostentará la presidencia de la Comisión.

c) El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

d) La Consejera de Industria, Comercio y Turismo.

e) El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

2.– La Secretaría de la Comisión Delegada de Planificación y Asuntos Económicos será desempeñada por la Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública.

*Artículo 3.*– Funciones.

Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordearen egitekoak ondokoak dira:

a) Jaurlaritzak onartu behar dituen plan, programa eta jardueren, nahiz Eusko Legebiltzarraren aurrean lege-egitasmo edo komunikazio gisa eztabaidatu behar direnen oinarrizko alderdi ekonomiko eta estrategikoen azterlana egitea.

b) Ekonomiaren plangintzaren prozesua bultzatu eta jarraipena egitea, baita ekonomia planak eta horien garapena aurrez onartzea ere, nahiz eta gero Jaurlaritzak onartu beharrekoak izan.

c) Jarraipen- eta ebaluazio-txostenen azterketa eta analisia egitea, Jaurlaritzak onartu beharreko planen betearazpen-prozesuan derrigorrez sartu behar direnak.

d) Politika publikoen plangintza bateraturako metodo eta tresna berriak aztertzea eta proposatzea, baita Jaurlaritzaren jardueran kalitatea handitzeko eta diseinuan, plangintzan eta ebaluazioan etengabe hobetzeko politika horien ebaluazioaren normalkuntza ere.

e) Euskal Gobernantza Publikoari eta Euskadiko Herri Administrazioan politika publikoen berrikuntza eta ebaluazio ereduei buruzko estrategien diseinura bideratutako azterketa, analisia eta proposamena egitea.

f) Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruz indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratua onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuaren arabera, eta aurrekontuei buruzko urteroko legeen arabera, batzordeari parte hartzeko agindu zaizkion alorretako aurrekontuetako eragiketak aztertu eta onartzea, nahiz eta bidezkoa denean Jaurlaritzari aurkeztuko dizkion behin betiko onarpena emateko.

g) Eusko Legebiltzarrean aurkeztu eta ekonomian edo finantzetan eragina izan edo politika publiko sektorialen aplikazioan koordinazioari eragiten dieten ekimenei buruz Jaurlaritzak duen irizpidea aztertu, ikertu eta proposatzea.

h) Euskal Administrazio Publikoaren erreforma, antolamendu, ekonomia eta ogasunarekin zerikusia duten gaien azterketa eta analisia egitea, baita Jaurlaritzaren egiturako sail guztientzako edo bereziki eragiten dien sail batzuentzako interes komuna duen edozein gairenak ere.

i) Administrazio eta gobernu elektronikoak osatzen dituzten proiektuak aztertu, analisia egin eta onartzea, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzak proposaturik.

j) Lege maila duen arauetan esleitu zaiolako, bere eskumen peko diren gaiak aztertu, landu, proposatu edo erabakitzea.

k) Jaurlaritzak ordezkoan emandako beste edozein egiteko edo, bestela, Jaurlaritzak, Lehendakariak edo lehendakariordeak aztertu eta lantzeko agintzen dizkio-

Son funciones de la Comisión Delegada de Planificación y Asuntos Económicos las siguientes:

a) Estudio de los aspectos económicos y estratégicos básicos de los Planes, Programas y actuaciones significativas que deba aprobar el Gobierno así como de los que hayan de tratarse ante el Parlamento sea como Proyecto de Ley sea como Comunicación.

b) Impulso y seguimiento del proceso de planificación económica y aprobación previa de los Planes económicos y su desarrollo, sin perjuicio de su aprobación ulterior por el Gobierno.

c) Estudio y análisis de los informes de seguimiento y evaluación que, con carácter preceptivo, deban incorporarse en el proceso de ejecución de los Planes aprobados por el Gobierno.

d) Análisis y, en su caso, propuesta de nuevos métodos e instrumentos de planificación conjunta y coordinación de las políticas públicas, así como de normalización de la evaluación de dichas políticas a fin de incrementar la calidad y mejora continua en el diseño, planificación y evaluación de la acción de Gobierno.

e) Estudio, análisis y propuesta, en su caso, de los proyectos dirigidos al diseño de las estrategias sobre Gobernanza Pública Vasca y sobre el Modelo de Innovación y Evaluación de Políticas Públicas en la Administración Pública de Euskadi.

f) Estudio y aprobación, en su caso, de las operaciones presupuestarias en las que sea preceptiva su participación a tenor del Decreto Legislativo 1/1994, de, 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi y de las leyes anuales de presupuestos, sin perjuicio de su elevación al Gobierno para su aprobación definitiva cuando proceda.

g) Estudio, análisis y propuesta, en su caso, del criterio del Gobierno en relación a iniciativas en el Parlamento Vasco que tengan consecuencias de carácter económico o financiero o que afecten a la coordinación en la aplicación de políticas públicas sectoriales.

h) Estudio y análisis de materias relativas a la Hacienda, Economía, organización y reforma y modernización de la Administración Pública Vasca así como de cualesquiera otras que tengan un interés común a todos los Departamentos en que se estructura el Gobierno o de manera especial afecten a varios de ellos.

i) Estudio, análisis y aprobación, en su caso, de los proyectos que conforman la Administración y gobierno electrónicos, a propuesta de la Vicepresidencia del Gobierno.

j) Examen, informe, propuesta o resolución de cuantas cuestiones sean de su competencia por haberle sido asignada en normas con rango de ley.

k) Las demás que puedan serle delegadas por el Gobierno o que éste, el Lehendakari o la Vicepresidenta sometan a su examen e informe. La delegación aludida

nak. Ordezko lan hori dekretuz eman beharko zaio eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

*4. artikulua.*– Funtzionamendu araubidea.

1.– Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak berak onartzen dituen barne-arauen arabera funtzionatuko du, hauekin kontraesanean edo aurkaritzan ez dagoen Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 19tik 21era bitarteko artikuluetan xedatutakoa aplikaziozko gehigarria izanik.

2.– Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak tratatu beharreko gaiek edo burutu beharreko funtzioek eskatzen dituzten sailarteko interes orokorra, konplexutasuna edo eskakizun teknikoek hala eskatzean gai zehatzetarako batzorde teknikoak edo lantaldeak eratu ahal izango dira eta hauetan administrazioko goi kargudunek parte hartu ahal izango dute.

3.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak beharrezko laguntza administratiboa emango du Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordearen funtzionamendurako.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Indarrean dagoen legeriak Ekonomia Batzordeari eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeari egiten dizkion erreferentziak Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeari egindako gisa ulertu beharko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordea sortu eta arautzen duen apirilaren 25eko 249/1995 Dekretua indargabetua geratzen da, hala nola berau aldatzen dutenak, urriaren 7ko 225/1997 Dekretua, martxoaren 9ko 158/1999 Dekretua eta urriaren 23ko 242/2001 Dekretua.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko azaroaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

deberá hacerse por Decreto que habrá de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 4.*– Régimen de funcionamiento.

1.– La Comisión Delegada de Planificación y Asuntos Económicos funcionará de acuerdo con las normas internas que ella misma apruebe, siendo de aplicación supletoria en todo lo que no contradiga o se oponga a las mismas lo dispuesto en los artículos 19 a 21 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

2.– Cuando el interés interdepartamental general, la complejidad o los requerimientos técnicos que demanden los asuntos a tratar o las funciones a realizar por la Comisión Delegada de Planificación y Asuntos Económicos lo exija podrán constituirse Comisiones Técnicas o Grupos de Trabajo para asuntos concretos y determinados en cuya composición podrán participar Altos Cargos de la Administración.

3.– La Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento prestará el apoyo administrativo necesario para el funcionamiento de la Comisión Delegada de Planificación y Asuntos Económicos.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Las referencias que la normativa en vigor haga a la Comisión Económica y a la Comisión Delegada para Asuntos Económicos deberán entenderse realizadas a la Comisión Delegada de Planificación y Asuntos Económicos.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 249/1995, de 25 de abril, por el que se crea y regula la Comisión Delegada para Asuntos Económicos, así como los que contienen sus sucesivas modificaciones, el Decreto 225/1997, de 7 de octubre, el Decreto 158/1999, de 9 de marzo y el Decreto 242/2001, de 23 de octubre.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de noviembre de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Vicepresidenta del Gobierno,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.